

Biharamunean kulunka itzartu nintzen. Mantan bilduta bizkarrean ninderaman Erramunek. Burua mantaren barrutik atera eta goizeko hotza nabaritu nuen aurpegian. Begiak txitxilduta ingurua aztertu nuen. Goiz bustia zen. Caroak zelaietako belar guztiak laztandu egiten zituen, baita Erramunen prakak eta botak ere. Egunsentiko lehenengo eguzki izpiak ahul agertzen ziren argitzen ari zen iluntasunean.

Egun on esan ostean lurrera jaisteko eskatu nion Erramuni. Behin lurrean dardard menderaezin batek astindu zidan gorputza gupidagabe. Ni dardarka ikustean ondoan belaunikatu, eta ezkerreko besoarekin estutu ninduen bularraren kontra. Eskumako besoa luzatu zuen eta hatzaz gure helmuga erakutsi zidan.

Baserri txiki eta txukuna zen. Ondo zaindua ematen zuen.

Bizkar eta bular aldean igurtzi batzuk eman ostean altxatu eta baserrirako bidea hartu genuen.

- Egoera argitu bitartean Anttonirekin geratuko zara Matxin! - esan zidan pausua arinduta.
- Baina... nik... nik amarekin bueltatu nahi dut! - esan nion aztoratuta.
- Horretaz Anttoni bera arduratuko da egoerak onera egiten duenean, baina orain sano nahastuta dago dena! Egon lasai Matxin!

Heldu ginenerako andre baserritarra guri itxaroten zegoen. Ilea urdinduta zuen, garondoa motots baten bilduta. Aurpegiko larruazala fina zuen, eguzkiak, haizeak eta lanak zaildua. Hala eta guztiz ere, aurpegiaren zimurrek ez zioten edertasunik kentzen Anttoniri. Irribarreak aurpegia argitu ez ezik epeltasuna eta bakea kutsatzen zion begiratzen zion guztiari. Mila marrako mantal batek gona estaltzen zion aurre aldetik, eta blusa zuriaren gainean lihozko gerruntze krema zuen jantzita.

Ezer esan barik sukalderraino sartu gintuen. Bertan zumitzezko aulki baten jesarrarazi eta aurrean platerkada bat morokil jarri zidan. Sukalde ekonomikotik lapiko bat esne hartu, koilara batez zuloa egin zion morokilari, eta lurruna zerion esnea erantzi zion erdian.

- Gorputza epeltzen lagunduko dizu honek, Jan ezazu laztana! - esan zidan Anttonik Erramun besotik helduta kanpora zeramala.

Han utzi ninduten morokila mauka-mauka jaten eurek etxe-atarian isilean hitz egiten zuten bitartean.